



AÑORGA

BILERAREN LABURPENA

Eguna	2015/11/10
Ordutegia	18:00-19:15
Tokia	Añorga Kirol Kultur Elkartearen Egoitza



DEITUTAKOAK

Añorga Txikitarrak AE/AV
Añorga KKE
Rekaldeko AE/AV

Gune Publikoak, Hiri Zerbitzuak eta Herri Partaidetza.
Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK

Añorga Txikitarrak AE/AV: 1
Añorga KKE: 2
Rekaldeko AE/AV: 2
Besteak/otras: 1

Udaleko Partaideak :

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Juan Ortiz de Zarate, Zuzendaria
Jurdana Arruabarrena, Teknikaria
Santxo Leizaola, Teknikaria

HELBURUA:

Añorgan hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

1. Añorgatzikiko goiko eta beheko aldeen arteko konexioa: igogailua.
2. Goi tentsioko dorrea kentzea
3. Aldrietako aparkalekua Euskotren ondoko lursailean
4. Adinekoentzako biltoki bat Añorgatzikiko
5. Zuhaitz bakanketa
6. Añorgatzikiko pilotalekuko pintadak kentzea
7. Hondakinak sailkatzeko koloretako paperontziak
8. Lorategiak zaintzea
9. Bide publiko/pribatuak mantentzeko lanak
10. Eskaerak eta galderak

Gaien azterketa

1. Añorgatzikiko goiko eta beheko aldeen arteko konexioa: igogailua.

Duñikek komentatu du igogailuetarako inbertsioak badaudela, baina uste du Añorgakoa ez dagoela aurreikusita. Mugikortasuneko inbertsioen kapituluan 200.000 € daude aurreikusita mugikortasun bertikaleko proiektuetarako 2016ko aurrekontuan, baina zer proiektu diren ez da aipatzen.

Añorga Txikitarrak elkarteak aipatu du 2011ko hauteskundeetan ia alderdi guztiek zeramatela proiektu hori kanpainan. Esan dute kostu txikiko proiektua dela eta adineko pertsonen ehuneko handia dela. Arkitektonikoki zailtasunik ez omen du eta balioko omen luke, gainera, eskola goiko aldearekin lotzeko.

Duñikek konpromisoa hartu du Mugikortasunekoei jakinarazteko.

2. Goi tentsioko dorrea kentzea

Santxok adierazi du, Obrak eta Proiektuak sailean bildutako informazioaren arabera, lehendik ere bazegoela linea bat zutoin bat zuena lursail berean baina beste kokaleku batean. ETSk lursaila zuritu zuen, eta zutoinaren orde zorro bat jarri zuen. Udalak, lanen segimendua eginez, linea lurperatzeko eskatu zion ETSri; horrez gain, Udalak, ez lehen eta ez orain, ez du arduratik gai horri buruz, ezta lanei buruz ere. ETSk eta Iberdrolak elkarri jaurtitzen diote pilota, baina teknikoki bideragarria da jarduera. ETSk argudiatzen du lehengo baldintza beretan utzi duela kontzeptualki. Nolanahi ere, Iberdrolak zeozer egingo balu orain zutoinari dagokionez, berriro ere dorre bat jarriko luke (behar den potentzia gaindimentsionatzeko joera baitute).

Añorga Txikitarrak elkarteak uste du traizio bat dela, lurperatuko zutela agindu zietelako. Gainera, lurperatzeko igarolekua prest dago jada.

3. Aldirietako aparkalekua Euskotren ondoko lursailean

Añorga Txikitarrak elkarteak eskatu du aldi baterako aldirietako aparkaleku bat egiteko Ibargoi en lursailean (lehengo aztergaiko bera). Bizilagunentzat ez ezik, baliagarria litzateke autoa han utzi eta Donostiako erdialdera sartzeko ere Añorgako Euskotrenen geltokitik.

Orubearen jabea Ibargoi en da, eta orubea bera industria eremu izatetik hirigune izatera igaro zen, baina behe dentsitatekoa. Ez dirudi jabeak asmoa duenik berehala eraikitzen hasteko. Lursaila mugatzen duen horma, zeinaren zati bat kendu baita, arriskutsua dago.

Duñikek konpromisoa hartu du gaia Mugikortasunari helarazteko eta galdetu du non aparkatzen duten orain bizilagunek

Firestoneren aparkalekua erabiltzen dutela erantzun dute.

Añorga Txikitarrak elkarteak puntu honetan esan du ETSk egindako lanek egoera penagarrian utzi zutela asfalto zoladura.

4. Adinekoentzako biltoki bat Añorgatxikin

Santxok azaldu du, Gizarte Ongizatekoekin elkarriketatu ondoren bildutako informazioaren arabera, adinekoentzako zentroaren eskaria elkarteak eta Gizarte Ongizate eta Partaidetza sailek Komunitateari Laguntzako Sareari buruz egindako bilera batean atera zela.

Añorga Txikik haserrea adierazi du 10.000 €-ak ez direlako lokal bat prestatzera bideratu.

Santxok argitu du 10.000 €-ak aurreikusita zeudela auzoko eragileekin partaidetza prozesu bat burutzeko Añorgatxikin belaunaldi eta sektore arteko ekipamendu soziokultural bat behar den gaiaren inguruan. Añorga Txiki eta Gizarte Ongizate sailaren artean, adinekoentzako auzoko balizko lokalari buruz, izandako elkarriketei dagokionez, Gizarte Ongizate sailaren mezu hau, beraiekin zuzenean jada aztertu dutena, helarazi die:

Gizarte Ongizate sailak lokalak kudeatzeko kontu sail bat du esleituta adinekoen elkarteentzako. Testuinguru horretan adinekoen taldeak hau egin behar du:

Elkarte gisa eratu.

Era horretara, aukera izango du hasiera batean urtarrian egingo den deialdiko mantentze eta jarduera gastuetarako laguntzak jasotzeko.

Eskatzen duten lokalarekin zenbait oztupo dago: Batetik, beste proiektu bat dago auzoan; beste alde batetik, ez da egokia irisgarritasunaren ikuspegitik; azkenik, obrak egin behar dira. Testu inguru horretan, argitaletxea zen eta orain hutsik dagoen lokalaren alokairua zenbatekoa litzatekeen informazioa biltzen ari da Gizarte Ongizate saila.

Amaitzeko aipatu du lokalaren erabiltzaile izan litezkeen adinekoen bi profil hauek daudela: karta jokoan ibiltzen den talde bat (eta orain arte erabiltzen zuten eremurik gabe geratuko direnak) eta auzoko beste leku batzuetara joaten ez direnak. Lokalari dagokionez, badirudi ez dutela tabernarik behar; nahikoa lukete salmenta makina batekin.

Azalpen horren ondoren, Añorga Txikitarrak elkarteak eutsi egiten dio eskola auzoarentzat berreskuratzeko beren eskaerari. Adierazi dute zailtasunak dituztela eskolaren eta elkartearen arteko harremanari eusteko. Eskola zaharrari dagokionez, hala ere, zenbait helburu eta erabilera posibleak ditu elkarteak.

5. Zuhaitz bakanketa

Añorga kalean, 2. eta 4. zenbakien artean.

Añorga Txikitarrak elkarteak konpromisoa hartu du guri mezu bat bidaltzeko. Eskatu dute, halaber, auzoko palmondo izugarria lekuz aldatzeko sarrerako biribilgune berrira.

Mantentze sailak erantzun du zuhaitzak lekuz aldatzea garestia dela, baina sar zitezkeela Obrak eta Proiektuak atalaren bulebarra egiteko lanen barruan.

6. Añorgatikiko pilotalekuko pintadak kentzea

Mantentze sailak konpromisoa hartu du Bide Garbikuntza sailarekin hitz egiteko.

Añorga KKEk adierazi du, pilotalekuaren ordainpeko erabiltzaile gisa, hau eskatzen dutela:

Fokuak

Zorua garbitzea

Zoladura garbia

Gehitu dute elkarteko pilotako ordezkariak egiten duela orain garbiketa.

Kiroletako Patronatuari helaraziko dizkiote eskaerak.

7. Hondakinak sailkatzeko koloretako paperontziak

Añorga KKEk azaldu du zorua pribatua den arren igarotzea/erabilera publikoa dela eta egiten diren mantentze lan guztiak bere kontura direla. Hori dela eta, mantentze lanei buruzko hitzarmen bat eskatu dute.

Beste alde batetik, iriatxoak eskatu dituzte. Eskaera hori dagokionez, konpromisoa hartu dute kokalekuei eta lehentasunei buruzko informazioa igortzeko.

8. Lorategiak zaintzea

Zinema areto aurreko lorategiak zaintzeko eskatu dute.

9. Bide publiko/pribatuak mantentzeko lanak

Gai hau 7. puntuan aztertu eta islatu da.

10. Eskerak eta galderak

1.-Zinta bat Errekalden:

Errotazar goialdeko desnibela gainditzeko zinta bat eskatu dute.

Mugikortasun sailari helaraziko diote gaia.

2.-Eserlekuak Errekalde eta Añorgatxiki artean

GFaren bidegorriaren ibilbidean hiru eserleku jartzeko eskaera egin dute

3.-Arzak Enea:

Markesina eskatu dute.

Mugikortasunari helaraziko diote.

4.-Errekaldeko markesina Bilboko noranzkoan

Markesina ez dator bat geralekuarekin.

Markesina zeinena ote den galdetu dute eta eskatu dute markesina autobusa gelditzen den lekuan egotea.

Mugikortasunari helaraziko diote.

5.-Errekaldeko markesina Donostiako noranzkoan

Aglomeratua botatzeko hurrenez hurreneko kanpainen ondorioz sortutako koska handia gainditzeko plataforma bat jartzeko eskatu dute.

Mugikortasunari helaraziko diote.

6.-Errekalde beilatokia:

Pasonibela kentzeko eta semaforoa eta zebra bidea jartzeko eskatu dute.

Mugikortasunari helaraziko diote.

7.- Bide seinaleak eta badena:

Errotazar bide hasieran, goranzkoan, seinale bat jarri dute adierazteko sarrera debekatuta dagoela 3,5 tonatik gorako ibilgailuentzat, busentzat izan ezik. Beheranzkoan, ezin dira hortik jaitsi ez ibilgailu astunak, ezta busak ere.

Hori dela eta, eskatu dute dagokion seinalea jartzea ekiditeko ordu jakin batzuetan Belartzatik datozen busak hortik jaistea.

Mugikortasunari helaraziko diote.

8.- Decathlon eta Karmengo Ama:

Markesina eskatu dute.

Mugikortasunari helaraziko diote.

9.-Donostia iragartzeko kartela

Donostiatik ateratzen ari zarela adierazteko seinalea gaizki kokatuta dago, Añorga / Errekalde auzoa amaitu baino lehenagoko toki batean; beraz, Donostiako Udalerriaren amaiera baino lehenago dago.

Behar duen tokian jartzeko eskatzen dute.

10.-Txikipark ingurua txukundu:

zebra bidea jartzea eta inguruak hobetzea eskatu dute.

Kontsultatuko da bulebarra egiteko lanen II. fasean aurreikusita dagoen.

